

Eta historia altxor kutxa bat izango balitz?

Jone M. Hernández. Gizarte Antropologia irakaslea. UPV-EHU.

Dudarik gabe gaur egun berezia da, ospakizun eguna da eta zoriondu nahi dut bai Eibarko Udala, bai Eibar herria eta nola ez Arantza Lasa Astola. Liburu baten aurkezpena ospatzen dugu baina, bereziki, ospatu behar da liburu horren atzean dagoen guztia: ilusioa, jakinmina, testingantzak, nekea, pozak, sormena... Liburua jasotzean eta irakurtzean konturatu naiz maitasunez eta aditasunez egindako lana dela. Bertan arreta eta ardua handia dago, ahalegina eta inplikazioa. Hori agerian geratzen da testu osoan zehar.

Quiero festejar la presentación de este libro por todo lo que significa para el municipio de Eibar, su ayuntamiento y su autora, Arantza Lasa Astola. Festejar y reconocer la ilusión, el interés, el cariño invertido en el mismo, patente y presente a lo largo de todo el texto. En los últimos años, como profesora de universidad me veo en la obligación de leer bastantes trabajos de investigación y debo reconocer que, entre los aspectos que especialmente valoro en su corrección, está la entrega y dedicación de la autora o autor, la emoción puesta en el mismo, el esfuerzo invertido. En este sentido considero que el trabajo de Arantza Lasa tiene esa capacidad de emocionar. A mi, desde luego, me ha emocionado.

Eta emozio hori, sentimendu hori, kontuan hartuta, hasi nintzen pentsatzen historia eta emozioen arteko harremanaz. Eta pentsatu nuen historia altxor kutxa bat bezala irudikatu daitekeela. Hau da, historiako liburu bat, "*Historia de las mujeres de Eibar*" bezalako liburua sorpresaz beteriko kutxa bat bezala agertu daitekeela gure aurrean. Horrela, opari bat jasotzen dugun momentuan sentitzen dugun zirrara irudikatu dezakegu bere azala aurrean. Eta azalaren atzean emozio gehiago. Ez ezagupena bakarrik, ez datuak eta zifrak, ez datak eta izenak, baita ere poza, tristura, maitasuna, miresmena, beldurra.... Nire ustez hori ere historia da.

Más allá de lo que el texto histórico nos cuenta, de sus datos, de sus episodios, de sus protagonistas, creo que debemos tener presente también la emoción que nos trasmite, lo que despierta en nosotras y nosotros, lo que nos provoca intimamente. La emoción presente en los acontecimientos históricos. Como lectora e investigadora esto es algo que me interesa muchísimo, me parece que tiene un valor tremendo porque nos ayuda a romper con falsas dicotomías muy presentes en el conocimiento (científico). Es el caso de dos conceptos como RAZON/EMOCION habitualmente presentados como polos opuestos. En antropología, disciplina de la que provengo, y sobre todo en el ámbito de la antropología feminista, hace tiempo comenzamos a cuestionar esta división, razón-emoción. Una división que desde el feminismo se ha venido relacionando con la norma dictada por el sistema de género: los varones vinculados a la razón, al discurso legítimo, a la autoridad; las mujeres relacionadas con el mundo emocional, con el silencio, con la voz carente de protagonismo, sin autoridad, una voz muchas veces ligada a la irracionalidad. Dos mundos que habitualmente se han presentado como enfrentados.

Ni ziur nago ezagupenean emozioa dagoela eta, era berean, konbentzituta nago emoziorik gabe ezagupena ez dela posible.

Horregatik, gonbidapena egiten dut Arantza Lasaren liburua emozioetatik ere irakurtzeko. Gonbidapena hori litzateke: irudikatu liburua altxor kutxa bat bezala eta abiatu, aurreiritzirik gabe, sorpresa bila. Eta irakurketa hori egiten ari garela datak, zifrak, izenak edota lekuak ezagutu eta bereganatzeaz gain, bestelako hausnarketa ere egitera animatuko nuke jendea.

Bidaia

Adibidez, hausnartu dezagun zergatik den garrantzitsua guretzako historia: historia ezagutzea, jasotzea, plazaratzea? Zergatik disfrutatzen dugu historiarekin? Zer ematen digu orokorrean historioak? Nik uste dut *“Historia de las mujeres de Eibar”* bezalako liburua bat arretaz, jakiminez eta emozioei irekia irakurtzen dugunean, bidai batek sortarazten dizkigun hainbat sentzazio bizi ditzakegula. Arantza Lasak, ibilbide luze bat eskeintzen digu: aurre-historian

hasita, 1970 hamarkada arte luzatzen den ibilbidea, alegia. Denboraren makinan sartuta, urte asko atzera joateko parada dugu liburuan zehar eta orrialde horietan zehar, leihotik begiratuta, Eibarko paisaia fisikoaz, baina, batez ere giza-paisaiaz eta horietan emandako aldaketaz ohartuko gara.

Parte de la emoción presente en el libro de Arantza Lasa tiene que ver con el viaje que la autora nos propone. A través de sus 160 páginas tenemos la oportunidad de desplazarnos hasta la prehistoria y llegar hasta la década de 1970 a bordo de una especie de máquina del tiempo. Toda historia tiene parte de viaje, creo que hay mucha emoción en el viaje al pasado que nos propone.

Bidaiaren ideiarekin lotuta uste dut historiak baduela beste dimentsio sentimentala nabarmendu beharrekoa: historiak gudan, pertsona bakoitzarengan sortzen dituen loturak (anklajeak), identifikazioak. Bidai guztiak ez dira berdinak, eta bisitatutako toki ezberdinek uzten dizkiguten sentzazioak ere ez. Bidai eta toki batzuk betirako geratzen dira gurekin, segurazki gu (gure zatiren bat) ere toki berezi horietan geratu delako. Horregatik berriro toki berdinerara bueltatzen garenean gustora sentitzen gara, osatuak bezala, eta ez gaudenean bertan herri-mina sentitzen dugu. Zentzu horretan interesgarria da irakurle bakoitza konturatzea –irakurketaren zehar- zein momentu eta pasarteekin sentitzen da identifikatuta. Horrela, gerta daiteke pertsonai zehatz batekin liluratuta geratzea, edo garai historiko batek kezka berezia sortaraztea. Horrek bide bat ireki daiteke aurrerantzean informazio gehiago bilatzen jarraitzeko, inguruan galdetzeko...

En definitiva, cualquier viaje, también el que nos ofrece la historia despierta sentimientos hacia los lugares visitados. De entre estos lugares algunos pasarán desapercibidos, otros nos atraparán y siempre querremos volver a ellos.

Pertsonalki garai historiko bat aukeratu behar izan banu geraleku bat egiteko XX. mendearen hasiera aukeratuko nuke. Eibar hiri bezala finkatzen ari da eta eraldaketa hori, hazkundera, gizarte mugimendua, lanbideen dibertsifikazioa emakumeen profiletan ere antzematen da. Momentu horretan emakumeak

gizarte eremu askotan topatzen ditugu, lanbide askotan esate baterako baina baita ere kultur arloan, kirolean, politikan.... Iruditzen zait emakume “modernoaren” irudia momentu honetan hasten dela defnitzen, eta bere protagonismoa handitzen ari da.

Genealogia

Pero este viaje, a través de la historia al que nos invita Arantza Lasa, ha creado además también una narrativa especial que podemos interpretar como un relato del trayecto que Eibar y sus mujeres han recorrido. Un relato que ha surgido para quedarse y formar parte de las historias que las y los Eibarreses se cuentan a si mismos.

Honek lotura handia du identitatearekin. Gizarte antropologiaren ikuspegitik historiak, zeregin garrantzitsua du: diskurtso bat, kontakizun bat, narratiba bat osatzea, gure buruari kontatu ahal izateko. Idei hau aplikatu daiteke herrialde edo nazio mailan, baina nik uste dut bereziki interesgarria dela herri txikien kasuan. Tokiko historia (kasu honetan Eibarko historia) gertukoaren historia da; bizilagunen historia, gure bizimoduaren historia. Tokiko historietan jasota geratzen diren lekuak, pertsonak, egunak, jaiak, ohiturak, dendak, eskolak, tailerrak, hospitalak, elizak... gure bizitzaren parte ere badira, batzuk desagertuta badira ere, gure genealogiaren parte dira. Familian ere denok ditugu pertsonak jada gurekin ez daudenak baina, modu baten edo bestean gure biografian daude txertatuta, gure identitatearen oinarrian daude eta gure jatorriaz hitzegiten digute.

Kaleetan paseatu, plazetan egon, eraikinak bisitatu, lan tokietan bildu... horiek gure egunerokotasunari loturiko jarduerak dira, baina gu baino lehenago beste batzuk errepikatu zituzten jarduera hauek, beste asko pasa ziren handik, beste batzuk okupatu zuten egungo espazioa. Eta euren aztarnak utzi zituzten eta gu aztarna horien gainean aritzen gara Eibar berri bati itxura emanez.

Construimos el día a día, y el municipio de hoy, partiendo del legado que hemos recibido, de las huellas dejadas por la historia. Muchos de sus

protagonistas (personas, espacios, edificios, oficios, costumbres) han desaparecido pero, como he dicho, sus huellas permanecen y sobre ellas, sobre este legado construimos el presente. Este legado está en el espacio que ocupamos, en el paisaje, en los edificios, las calles... Por ello una manera de decir quienes somos es conocer y contar de qué somos parte. Y somos parte del Eibar que fue, de quien nos precedieron. Rescatar las historias locales es un modo de contarnos a nosotros mismos, de entendernos y de comprender todo lo que compartimos quienes habitamos y hacemos un entorno, un paisaje. La historia local es genealogía, es legado y patrimonio.

Gaurtik aurrera Eibarko emakumeek beste tresna bat dute euren genealogia osatu ahal izateko. Liburuak hari bat luzatu du Fermina López de Unzueta y Olaso hasita (Eibarko historioan dokumentatuta dagoen lehenengo emakumea –XIV mendearen inguruan) gaur egungo edozein emakumeraino iristen dena.

Arantza Lasak, bere lanarekin, herriko ondarea handitu eta aberastu egin du diskurtso horretan, kontakizun horretan ahots berriak gehituz. Emakumeen ahotsak, garai ezberdinetako emakumeak, profil diferenteak dituzten emakumeak, jatorri ezberdinetakoak, ikuspegi ezberdinak izan dituztenak, pentsaera diferenteak defendatu dituztenak, esperientzia ezberdinak bizi izan dituztenak.

Ahotsak

Aniztasuna ardatz nagusia da Arantza Lasaren liburuan, argi dago kasu honetan protagonista ez dela “Eibarko emakumea” “Eibarko emakumeak” baizik. Jada hamarkada batzuk pasa dira feminismoaren korrente batetik hasi zela aldarrikatzen “emakumeen” kontzeptua beti pluralean erabiltzea eta ez – orduarte ohikoa zenez- singularrean. Diskurtsoen gaineratik eta aurreiritzien gaineratik, egileak herri baten errealitatea jaso du eta bertan ageri da, errealitate horren adierazle bezala, aniztasuna. Horrela topatu ditugu: emakume nobleak, baserritarrak, maistrak, emagalduek, erizainak, enpresariak, dendariak, patronak; amak izan zirenak eta izan ez zirenak; Eibarren jaio eta hil egin zirenak eta urrutitik etorri zirenak geratzeko; eskondu zirenak edota beste

bizimodu baten alde egin zutenak; bidaiariak, kirolariak, sortzaileak, musikariak... Denak diferente eta denak pareko, Eibarren nagusiki emakume langileak egon direlako (eta daudelako). Emakume horiek inork baino hobeto erakutsi digute Eibarren bizitza lanaren sinonimoa izan dela eta emakumeak beste ezer baino lehen langileak izan direla.

Pertsonalki, pentsatzen dut, aniztasun honen berri ematearekin liburu honen helburua beteta dagoela. Eibarko emakumeak ikustaraztea lorpen bat da, baina gainera emakume guzti horien izenak, bizitzak eta bizimoduak agertzeak eta erakustek areagotzen du bere balioa. Zergatik? Edozein herritan, bizitzan, (egunerokotasunean) ematen den konplexutasuna isladatuta geratzen delako.

Como muy bien queda reflejado en el libro no podemos hablar de LA mujer de Eibar. La variedad de realidades, formas de vida, tipos de pensamiento, trabajos y tareas, aficiones, niveles de educación y cultura, clases sociales... asociadas a las mujeres de Eibar es tan amplia, que ya supone un trabajo en si mismo sacar todo ello a la luz. Creo que reflejar esta variedad y la complejidad de los perfiles de las mujeres de Eibar es uno de los logros de la investigación.

Baina konplexutasuna erakustean errealitatearen berri emateaz gain beste helburu garrantzitsu bat lortzen ari gara: hor heziketarako prozesu bat irekitzen ari garela. Oso garrantzitsua iruditzen zait belaunaldi berriek, umeek, gazteek, ezagutzea emakume horien errealitatea eta bizimodua. Bakarrik ezagupen horretatik egin dezakegu ebaluazio bat eta ikusi non gauden, zein momentuan gauden genero berdintasunari dagokionez. Bakarrik informazioarekin neurtu ahal izango dugu noraino iritsi dira aurrerapenak.

Era berean, liburuak eskeintzen duen ezagupen konplexu eta zabal horrek aukera ematen du kontrastatzeko eta –hainbatetan- zalantzan jartzeko ezarritako ereduak, aurreiritziak, estereotipoak eta, era berean, eredu berriak agertzeko edota finkatzeko.

Creo que el libro, por su enfoque abierto nos da la oportunidad de iniciar procesos de reflexión y aprendizaje que permitan –no sólo- pero si sobre todo a

las nuevas generaciones manejar una información válida de cara a poder calibrar en que momento estamos en relación a la meta de la igualdad de género. Creo además que este trabajo de recuperación, visibilización y puesta en valor de la vida y el trabajo de estas mujeres, es fundamental de cara a cuestionar estereotipos y sobre todo crear o consolidar modelos y referentes.

Mundu globalizatu honetan, non informazioz gainezka bizi gara, dena dakigula eta dena ezagutzen dugula pentsatzea tentagarria da. Erritmo bizian eta zoroan, orainaldiari begira bizi gara historiari bizkarra emanez. Etorkizunak liluratzeko gaitu, historia beste garai bateko kontuak dira, pasata dago, zergatik, zertarako begiratu atzera? Jada, arrazoi batzuk aurkeztu ditugu. Emakume bezala, feminista bezala, arrazoi bat gutxienez badut: lorpen kolektiboaz jabetzeko. Emakume taldeak oso presente egon dira eta daude herrian, bere historian: lan munduan, aisialdian, kulturean, kirolean, politikan... Emakumeak antolatuta egin dira era bateko edo beste helburuak lortzeko, eta antolatuta ezin izan direnean sareen bitartez bideratu dituzte euren beharrak. Eta sareak aipatzean emakume baten izena nabarmendu nahiko nuke: Ana de Unzueta y Gamboa, 1525an Eibarren jaioa. Emakume noblea zen, alfabetatua. Pedro Ibarrekin eskondu zen (familiako interesak zirela eta) eta urte askotan bere senarrarengandik aldentuta egon bazen ere, azkenean Milanera joan zen bizitzera (Pedro Ibarrek bertan zuelako lana).

“En su estancia en Milán, Ana redacta un extenso documento exponiendo su última voluntad. En él da a conocer sus relaciones y afectos hacia un amplio colectivo de mujeres de distintas clases sociales, cohesionadas como una gran familia. Fue nombrando herederas a Magdalena de Uncueta y Aranguren, prima y confidente; Francisca, la mujer de su cocinero; Mariquita, Leonor y Anita sus esclavas a las que deja libres y a buen recaudo; Catalinica de Utrera, huérfana adoptada; Marinacho de Uncueta, su criada; Catalina de Ugalde, hermanastra; Ynesa, Estivariz, Mari López y Elvira de Uncueta, primas; Domenja de Iturrao, su vecina... El texto que se dispone recoge el nombre de dieciocho varones y cuarenta y dos mujeres. Ellas fueron las predilectas en una época en la que la mujer estaba silenciada” .

Somos parte de una cadena que se prolonga en el tiempo, somos parte de una red que nos une en un espacio y una época. Como personas y como mujeres es importante tomar conciencia de nuestro papel en los cambios y las transformaciones que se suceden, somos protagonistas. Entre todas y todos hacemos la cultura, la historia. Aquella que otro día alguien como Arantza Lasa contará.

Horregatik ezinbestekoa jotzen dut pentsatzea: zer historia nahi dugu etorkizunerako?

Eibar, 2011-5-26